



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko agorrilaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko agorrilaren hiruan, zortzi eta erdietan, Herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, M. GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, JORAJURIA Ramuntxo

Bilkurako idazkari izendatua izan da : Mme CHAMALBIDE Corinne

Deialdiaren eguna : 2021eko uztailaren 30a

Afitxatze eguna : 2021eko uztailaren 30a

3.ERABAKIA : POSTA GAINENKO APARTAMENDUAREN ARRABERRITZEKO DIRU-LAGUNTZAREN GALDEGITEA

Nomenklatura : 7.10

Auzapez Jaunak, Herriko Kontseiluari, Gure Doia etxebizitzan kokatua den, posta agentziaren gainekaldean den etxebizitzaren arraberritze obra proiektua azaltzen du.

Igeltso ezartze, elektrizitate, iturgintza, lauatzte, barne eta kanpo zurgintza baita barne tindu arraberritze obrak dira egiteko.

Herriko etxeak Estadoaren baimena galdegiten du PALULOS-i doakionez, aipatu etxebizitzarendako.

Hitzarmenak behartzen duen zama gehiengoa ez du depasatuko alkairuak.

Auzapez Jaunaren PROPOSAMENAREN ONDORIOZ,

HERRIKO KONTSEILUAK, aho batez,

- ERABAKITZEN du Gure Doia etxebizitzan kokatua den posta agentziaren gainekaldean etxebizitzaren arraberritze obraren eramaitea.

- ONARTZEN du 61.032€ko estimazio debisa (ordainsariak barne) BEZ-a barne (BEZ %10).

- PALULOS baimena GALDEGITEN du.

- diruztatzaille potentzialei (Estadoa, Departamenduko kontseilua, Euskal Herriko Hirigune Elkargoa, Eskualdea, ADEME, etabar.)diru eskaerak GALDEGITEN ditu.

- ondoko aurreikusi finantzaketa plana ONARTZEN du :

GASTUAK	ZAMA BEZ-a kanpo	DIRU SARTZEAK	ZAMA
Obrak	52 458€	Euskal Hirigune elkargoaren diru laguntza	10 000 €
Obra maisutza	3 026 €	Kontseilu Departamentalaren diru laguntza	24 387 €
		DETR	10 000 €
		Autofinantzaketa	11 097 €
OROTARA	55 484 €	OROTARA	55 484 €

- herriko aurrekonduan obren egiteko beharrezko kredituak AURREIKUSTEN ditu.

- Auzapez Jaunari BAIMENA emaiten dio, obren egiteko beharrezkoak diren dokumentoen izenpetzeko, batez ere APL alokairuaren hitzarmena.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko agorrilaren 3an

Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,

2021/09/13an publikatu edo notifikatu ondoan,

Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/09/13an.